



euskal
eskola
publiko
komunitarioa
iruten

EZTABAIDARAKO TXOSTENA



www.iruten.eus

HEZKUNTZA EGITASMOA BERRITZEN

Egitura politikoaren kontrola duen elitearentzat, indarrean dauden baloreak eta jarrerak birproduzitzeko mekanismoa da hezkuntza; nazio, genero nahiz klase hegemonikoaren baloreak eta jarrerak, hain zuzen ere.

Aldiz, zanpakerarik gabeko jendartea sortu nahi dugunontzat, hezkuntza mundua hobetzeko prozesua da; mendeetan zehar eliteen mesedetan eraikitako arrazakeria/nazio zapalketa, patriarkatua eta klasismoa deseraikitzeo aukera. Hezkuntzak ezin du bere kabuz klase sozialak edota patriarkatua desegin, horretarako iraulketa soziopolitiko eta sozioekonomikoa beharrezkoa da. Baina hezkuntzak azpiratutako giza-taldeak ahalduz lagun dezake, iraulketa horretarako baldintza subjektiboak hobetuz. Hezkuntza eraldaketa, beraz, jendarte eraldaketa orokorrarekin uztartu beharra dago.

Honela, askapen mugimendu orok, besteak beste Euskal Herrikoak, garrantzia handia aitortu dio hezkuntzari, belaunaldi berriak justizian eta askatasunean hazteko xedez. Europako sozialista eta feministentzat, deskolonizazio mugimenduentzat edota kontinente ezberdinetako iraultzaileentzat lehentasunezkoa izan da azpiratutako jendarte sektoreen alfabetatzea eta heziketa, parametro berri batzuen arabera. Ikuspegi honetatik, hezkuntza gizabanakoa nahiz jendartea ahalduzterako tresna nagusietako bat izan da.

Hezkuntzaren inguruko definizio neutroek sakoneko gatazka hau ezkutatu ohi dute. Baina funtsezkoa da hezkuntzaren inguruko edozein irakurketa eta proposamen egiteko orduan. Euskal Herrian dugun hezkuntza, bere adierarik zabalenean, sakoneko tira-bira horren ondorio da. Gaur egun ezagutzen dugun hezkuntzak, neurri batean, eliteek ezarritako parametroen eragina dauka; baina beste neurri batean, zanpaketa ezberdinen kontzientzia izan duten herritarren eragina ere badauka.

Ildo horretan, merezi du, laburki bada ere, nondik gatozen erreparatzea, azken 50 urteotan arreta jarritz.

1. NONDIK GATTOZ

Hezkuntza sistema modernoaren sorrera eta garapena

Feudalismoan zehar, eliteak baino ez zuen heziketa formala jasotzen, Elizaren eskutik jaso ere, herritarren gehiengo zabala etxean bertan hazten zen, egitura sozialaren arabera zegokion lan eta bizi jarduerak betetzeari begira. XVIII. eta XIX. mendeetako Iraultza burgesek antolamendu ekonomiko eta politiko berria ezarri zutelarik, eskolaratzea hedatzen hasi zen, estatu-nazio burgesak behar zuen hiritar eredu hezitzeo asmoz.

Iraultza frantsesaren ondotik Ipar Euskal Herrian hedatzen hasi ziren eskolen helburua, gizonen eta dirudunen nagusitasunean oinarritutako Nazio Frantsesa sendotzea zen, nazio periferikoen egitura sozial eta kulturalak deseginez. Industrializazio prozesuan sakondu ahala, ekoizpen sistemak behar zituen langile diziplinatu eta erdizka kualifikatuak hezteari garrantzia eman zitzaion. Honela, estatuak kontrolatutako eskola publiko, laiko eta zentralizatua ezarri eta garatu zen, tokian tokiko kulturak mesprexatu egiten zuena. XIX. mendearen hasieratik erreforma sakonak egin zituen burgesiaren eskuetan zegoen Frantziako Errepublikak eta 1881-82ko Ferry legeekin borobildu egin zen prozesua.

Hego Euskal Herrian antzeko prozesua eman zen, bi desberdintasun nagusirekin: batetik, hezkuntza sistemaren garapena berantiarra eta askoz ahulagoa izan zen; bestetik, Elizaren boterea askoz handiagoa izan da, bai bere menpeko eskola pribatuen sare indartsua kudeatuz, baita eskola publikoan esku hartuz ere. Isabel II.aren erresumaren eredu liberala indartzeko xedez, 1857ko Moyano Legeak ezarri zituen Espainiako hezkuntza sistemaren oinarriak eta, gerra karlisten ondotik, euskal herrialdeak kulturalki menperatzeko tresna bilakatu zen. Zentralizatutako eta administrazio liberalak kontrolatutako eredu

“publikoa” finkatu zen.

Gauzak horrela, bi hezkuntza sistema horien diseinuak Estatuen kontrola zuten eliteen interesei erantzun izan dio neurri handi batean. Baina beste neurri batean, aldaketa sozialak bultzatu dituzten gizataldeen eragina ere jaso dute. Honela, ezkerreko indarren nahiz mugimendu feministaren eraginez, langileen seme eta alabak oinarrizko hezkuntzan ez ezik goi hezkuntzan jarduteko eskubidea irabazten joan dira. Era berean, mugimendu abertzalearen eraginez, norberaren hizkuntza ez ezik norberaren hizkuntzan ikasteko eskubidea indarra hartzen joan da hamarkadetan zehar. Bizkaiko Auzo Eskolak eta Eusko Ikastola Batza bezalako ekimenek erakutsi zuten bazegoela euskaraz ikasi eta irakasterik.

Prozesu hau guztia ez da lineala izan, inondik ere; aurrerapauso eta atzerapausoak eman dira fase politiko bakoitzean. Hego Euskal Herriari dagokionez, Espainiako II. Errepublikako garaia aipatu beharra dago, non hezkuntza eredu laiko, unibertsal eta aurrerakoa garatzearekin batera, nazio ezberdinetako hizkuntzei ate txiki bat ireki zitzaizen (garai honetakoa da, hain zuzen ere, Eusko Ikastola Batza). Aldiz, 36ko estatu kolpearekin hezkuntza sistemak hamarkadak egin zituen atzera. Espainolismo gogorrean, sexuaren araberrako banaketan, arrazismoan eta klasismoan oinarritutako hezkuntza eredu ezarri zen Estatu osoan.

1958-1975: Euskal Herriaren berpizte kultural eta politikoa. Ikastolen sorrera eta garapena. Goi irakas-kuntzaren garapena.

Eusko Jaurilaritza erbestean eta aldaketen zain zegoen bitartean, belaunaldi berri batek erregimen frankistaren kontrako borrokari ekin zion. Abertzaletasuna ulertzeko modu berri bat zekarten gazte haiek: etnia eta ohitura zaharrak baino, lurraldea eta hizkuntza ziren ardatz nagusienak. Honela, Euskal Herrian bizi eta lan egiten zuen oro zen euskal herritarra eta euskara zen Euskal Herriaren eraikuntza eta kohesiorako tresna nagusia. Gainera, gazte haiek mundu ikuskera kontserbadorearekin apurtu zuten, ezkerreko mugimendu iraultzaileetatik edanez. ETAren inguruan antolatu ziren nagusiki eta, langile mugimendu anitzarekin eta abertzaletasun tradizionaletik zetozen sektoreekin batera, Euskal Herriaren berpizte politiko eta kulturala sustatu zuten. Testuinguru honetan sortu ziren, besteak beste, euskara batua, euskal kultura berpizkuntza, euskaltegiak eta ikastola modernoak.

Ikastolek ezkerreko abertzaleen babesa ez ezik abertzaletasun tradizionalarena ere izan zuten, hasieratik herri egitasmo bilakatu. Frankismoaren debekua gainditzeko Elizaren gerizpean sortu ziren hasiera batean eta frankismoaren azken garaian gero eta jardun publikoagoa izan zuten. Ikastolen eboluzioa ikusgarria izan zen: 1964an 596 ikasle, 1970ean 8.255 ikasle eta 1975ean 35.000 ikasle baino gehiago (EAEEn 33.371 eta Nafarroan 2.158).

Euskal Herria ukatzen zuen eskola frankistaren nahiz eskola frantsesaren aurrean, Euskal Herri osoan antolatu eta euskaraz jarduten ziren ikastolak, hezkuntza sistema edo sare propio bat irudikatuz. Klase ertain abertzaleko seme-alabak ez ezik, langile jatorriko ikasleak ere bilduz joan ziren ikastolen egitasmora. Horietako bakoitzaren klase osaketaren arabera, izaera elitistagoa edo herrikoia hartu zuten. Edozein kasutan ere, eskola frankista kontserbadorearen aurrean, pedagogia eredu aurrerakoa garatu zuten ikastolek.

Eskola publiko frankistak nahiz eskola pribatu-erlijiosoak apenas aldaketarik gabe iraun zuten frankismoaren amaiera bitartean. Hori bai, bertako irakasle eta ikasle ohietako askok frankismoarekiko oposizioan militatu zuten. Langile mugimendurekin batera, irakaskuntza esparrutik zetozen koadroek elikatu zituzten ezkerreko erakundeak.

60. hamarkadan izandako susperraldi ekonomikoaren eraginez, goi-irakaskuntza zabaltzen joan zen Hego Euskal Herrian, Ipar Euskal Herrian baino nabarmen beranduago. Gero eta langileen seme-alaba gehiagok unibertsitateko ikasketak egiteko aukera izan zuten eta euretako askok diktaduraren kontrako erakundeetan parte hartu zuten. Ipar Euskal Herriko ikasle unibertsitarioek, berriz, Frantziako unibertsitate ezberdinetan sakabanatu behar izaten zuten, Paueko unibertsitateak Baio-

nan duen titulazio eskaintza murrizta dela eta; Pabe, Bordele edota Parisen bizi izan zuten 68ko Maiatza.

Hezkuntza ez unibertsitarioan ikastolek egin bezala, eta maila apalagoan bada ere, unibertsitatean ere euskarazko eskaintza herri ekimenez sustatzeari ekin zitzaion: 1973an Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) sortu zen, honako helburu hauekin: Euskal Unibertsitatea sortzen laguntzeko baldintza sozial eta politikokoak ahalbidetzea; euskal komunitate zientifiko-intelektuala metatzea; eta unibertsitate-gaien euskalduntze, ekoizpen eta zabalkundean sakondu eta gizartearen eskuetan jartzea

1975-1993. Hego Euskal Herrian, marko autonomikoaren eraikuntza. “Escuela nacional”etik eskola publiko autonomikora. Erreforma pedagogikoa. EAEn, ikastolei hordagoa.

Hego Euskal Herrian eman ziren garai honetako aldaketa nagusienak. Frankismoko eliteek tutelatutako trantsizioaren bidez, Monarkia parlamentarioan, komunitate autonomoetan eta eredu kapitalista-liberalaren premisetan oinarritutako ordenamendu politikoa ezarri zen. Espainiako Konstituzioak ez zuen lortu euskal herritarren gehiengoaren babesik, nagusiki Espainiaren batasuna ezarri eta batasun hori bermatzeko ardura Armadari egokitzen ziolako. Gauzak horrela, ETAk borroka armatuari eutsi zion, jendartearen zati baten babesarekin. Konponbide adostu baterako saiakerak porrot egin eta gatazka armatua luzatu egin zen, alde anitzeko sufrimendua eraginez.

PNVk Espainiako Gobernuarekin negoziatutako estatutuak EAeko herritarren gehiengoaren babesa jaso zuen; Nafarroan ez zen galdeketa egin eta Foru Hobekuntza ezarri zen. Institutuzio autonomiko jai berriek hezkuntzako eskumenak eskuratu zituzten. Honela, ordura arte Espainiako Gobernu frankistak kudeatzen zituen eskolak Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren eskuetara igaro ziren. Unibertsitate esparruan ere, ordura arte Zaragoza eta Valladolideko unibertsitateen menpe zeuden fakultateak UPV-EHU eta UPNA-NUP sortu berrietara transferitu ziren; azken honen kasuan, Opus Deiren itzal luzeak bere garapena baldintzatu bazuen ere.

Edozein kasutan ere, EAE eta Nafarroako Gobernuak hezkuntza eskumenez eskuratu arren, Estatuak hezkuntza sistemaren oinarritzko arauen gaineko kontrolari eutsi zion, hala hezkuntza ez-unibertsitarioan nola unibertsitatean. Azken honen kasuan, UPV-EHU funtzionario espainiarra ez litzatekeen irakasleria propioa garatzeko ezarritako oztopoek gatazka luzea eragin zuten.

Transferitutako eskola publikoan sakoneko eraldaketa bati ekin zitzaion, kasu askotan guraso eta irakasleen aitzindaritzaz. Langile auzoetan zeuden masifikatutako eskoletan baliabideak lortzeko, populazioa galtzen ari ziren herri txikiak eskolei eusteko edota D ereduko lerroak irekitzeko herri presioa esanguratsua izan zen. Eskola publiko guztiak mistoak izatera igaro ziren, androzentrikoak izaten jarraitu zuten arren. Eskola Kontseiluak martxan jarri ziren eta erreforma pedagogikoaren aldeko mugimenduek (tartean, hezkidetzaren aldekoek) indar handia hartu zuten hala Estatuan nola Hego Euskal Herrian. Gurean Adarra izeneko mugimendua nabarmendu zen. 1990eko LOGSE legean eskoletan aldarrikatzen ari ziren hainbat aldaketa jaso ziren; halere, hezkuntza sistemaren izaera zentralizatuari eutsi zitzaion: administrazioa zen ikastetxeen titularra eta kudeatzaile nagusi.

Garai honetan ikastolen mugimenduak indar handia izaten jarraitzen zuen. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari dagokionez, 1975ean 33.371 haurrek ikasten zuten ikastoletan eta 1979an 51.146 ziren. Nafarroan, berriz, 1975ean 2.158 eta 1979an 4.931 ikasle zeuden ikastoletan. Esan liteke ikastolek demostratu zutela posible zela eskolaratze masiboa egitea euskaraz eta horrek eskola publikoaren ateak ireki zizkion euskarazko irakaskuntzari. Areago eta gehiago, eskola pribatu-erlijiosoak ere euskarazko eskaintza egiteko beharra ikusi zuen EAEn, ikastola eta eskola publikoen atzean ez geratzearren.

Eraldaketa prozesu batean zeuden eskola publikoen eta hezkuntza eredu propio bat garatzen aitzindari izan ziren ikastolen arteko konfluentziaren bidez euskal eskola publikoa sortzeko apustuan bat egiten zuten sektore askok EAEn. Espainiako ereduarekiko ezberdina litzatekeen eskola eredu publiko eta euskalduna sortzea zen erronka. Bien bitartean, ikastolei hiru-

iruten

garren sarearen izaera aitortu zien Eusko Jaurlaritzak, alegia, ez publiko eta ez pribatu.

Alabaina, EAEko instituzionalizazio autonomikoa indartu ahala, hiru sare izateak suposatzen duen berezitasunarekin amaitzea erabaki zuen PNV-PSEren Gobernuak. Bi sareen arteko konfluentzia adostua bideratu baino, ikastola bakoitzari sare publikoan integratu ala sare pribatuan geratzearen artean erabakitzea derrigortu zitzaion. Presiopean hartu beharreko erabaki horrek eztabaida eta zauri ugari sortu zituen eskualdez eskualde. Gainera, Euskal Herriko eskola publiko propioa izendatzeko erabili izan zen “euskal eskola publikoa” izena EAEko eskola publiko autonomikoari jarri zitzaion.

Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan ez zen horrelako prozesurik egon; bi lurralde hauetan euskarazko irakaskuntza mehatxutzat ikusi baitute agintean egon diren alderdiek. Lehenengoari dagokionez, Frantziako Gobernuak ez zuen onartzen sare publikoan murgiltze eredia ezartzerik eta ikastolekiko jarrera erasokorra mantendu zuen. 1995ean legeztatu zituen ikastolak eta halere ikastetxe eta gela berriak irekitzea edota beharrezko baliabideak eskuratzea urteroko borroka izan da ordutik Seaskarentzat.

Nafarroan, berriz, Vascuenceren Legeak eremu ez euskalduntzat jo zuen lurraldeko eskola publikoetan D ereduko eskolak irekitzea eragotzi zuten urte luzez PSN eta UPNren Gobernuak eta bertan dauden ikastolei ituntzeko aukera ere ukatu zieten. Ikastolak 2006an legeztatu ziren eta 2015ean egindako lege aldaketak D ereduko lerroak irekitzea baimendu zuen. Edozein kasutan ere, EAEn bezala, bi hezkuntza-sareen eskema ezarri zen Nafarroan ere: administrazioak kudeatutako eskola publikoa, batetik; eta eskola pribatu-kontzertatua, bestetik.

Garai honetan zehar, hezkuntzako langileen mugimendua eraldatzen joan zen eta irakaskuntzako garaiko sindikatuak jaio ziren: STEE-EILAS 1978an eta LAB-Irakaskuntza 1987an. Azken hau, gainera, Ipar Euskal Herrian ere antolatu egin zen 2000. urtetik aurrera, irakaskuntzako sindikatu nazional bakarra osatuz.

Amaitzeko, laburki bada ere, garai honetako bi berrikuntza garrantzitsu: batetik, langileen seme eta alabak goi irakaskuntzara iritsi egiten dira era masiboan; bestetik, testuinguru honetan, ikasle mugimendu modernoak sortzen da, 80. hamarkadako ikasle koordinadoreen sorrerarekin eta nagusiki Ikasle Abertzaleak erakundearen jaiotzarekin (1988). Guraso eta irakasleekin batera, ikasleak ahots propioz azalduko zaizkigu aurrerantzean, besteak beste autoritarismoa ezabatu, unibertsitatea euskaldundu edota herri eskolak aldarrikatuz.

1993-2008. Nazio eraikuntza berri eta 93ko haustura gainditzeko ahaleginak. Migrazio mugimenduak. Iraultza digitala.

Ibilbide luzea daukan Nazio Eraikuntza filosofia eta praktika berritzeko ahalegin handia egin zen 90. hamarkadan, nagusiki Ezker Abertzalearen ekimenez. Gatazkari konponbide demokratikoa ematea proposatzen zuen Lizarra-Garaziko hitzarmenarekin batera (1998), Euskal Herria herri bezala egituratzeko ekimenak biderkatu ziren, besteak beste, euskal selekzioen aldeko dinamika (ESAIT 1995ean sortu zen), Bai Euskarari kanpaina eta Kontseiluaren sorrera (1998), Udalbiltza (1999), Gai-degia (2004), Laborantza Ganbara (2005) edota Nazio Eztabaida gunea eta Nazio Garapen Biltzarra (2005). Eremu abertzalean egondako desadostasunek nahiz Espainiako estatuak ezarritako ilegalizazio estrategiak ahalegin hauen garapena mugatu bazuten ere, herrigintza garatzeko estrategien berrikuntza eragin zuen, baita hezkuntzan ere.

Hezkuntzari dagokionez, EAEn gauzatu eta Euskal Herri osoan eragin zuen 93ko lurrikararen ondotik, konfluentziaren ideia (bi abiapuntu, helburu bakarra) berritzen du Ezker Abertzaleak: sare publiko euskalduna antolatuz eta garatuz nahiz ikastolen mugimendua garatuz, euskal eskola publiko berria eraikitzea litzateke erronka, hezkuntza sistema propioaren ardatz gisa. Unibertsitatean ere planteatzen zen eskema hau: unibertsitate publikoetako euskal adarrak garatuz eta UEUren eskutik Euskal Unibertsitatea sortuz eraldatuko litzateke goi irakaskuntza. Hezkuntza esparruari begirako beste ikuspegi batzuk ere baziren, jakina, 93ko legeak ezarritako eskola publiko ereduarekin konformatzen ziren horietatik hasi eta ikastolen esparruan

“euskal eskola publiko berriaren” ideari muzin egiten zioten horietara arte.

2000. urtean osatu zen eskola publiko autonomikoaren barrutik euskal eskola publiko berriaren aldeko elkargunea, Sortzen-Ikasbatuaz. Sortzen 1991ean sortu zen, Hego Euskal Herri mailan, euskal eskola publikoa aldarrikatzeko plataforma gisa; 93ko zatiketaren ondorioz EAEtik desagertu zen eta Nafarroan D ereduko ikastetxe publikoen sare bilakatu zen. Ikasbatuaz, berriz, publikatu ziren ikastolen gehiengoak sortu zuen, benetako euskal eskola publikoaren alde lanean jarraitzeko asmoz. Bien fusioarekin (2001), eskola publikotik klabe nazionaletan urratsak emateko aukera sortu zen. Alabaina, Sortzen-Ikasbatuaz (2012tik aurrera, Sortzen izenarekin) ez da gai izan, salbuespenak salbuespen, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ikastoletatik ez zetozen eskola publikoak bere proiektura biltzeko. D ereduaren hedapena izugarria izan zen, bereziki EAEko sare publiko autonomikoan; baina euskal eskola publiko berriaren ortzimuga estrategikoa lausotzen joan zen.

Ikastolen Elkartek, berriz, 93ko ataka zailaren ondotik eta finantziario gabeziaren aurrean, bere egitasmo pedagogikoari eusteko ahaleginari lehentasuna eman zion. Euskal eskola publiko berria aldarrikatu baino, hezkuntza zerbitzu publiko gisa aitortu eta baldintza jakin batzuk betetzen dituzten itundutako ikastetxeen finantziario publikoa hobetzea da bere eskakizun nagusia. Bere gaitasun pedagogikoa erakutsi zuen, Euskal Curriculum bezalako egitasmo estrategikoetan aitzindari arituz. Halere, apurka-apurka Euskal Herriko eztabaida soziopolitikoarekiko distantzia hartzen joan da, bere gogoeta eta ekimena hezkuntzara mugatuz.

Eskola publiko euskaldunaren eta ikastolen elkartearen arteko zubiak eraikitzeke bi saiakera nagusi egon ziren 93aren ondotik. Lehena LABen Ipar Hegoa Fundazioak 1998an antolatutako “Euskal Eskolak 20 urte” jardunaldiaren ondotik hasi zen, Gunea izeneko gogoeta espazioaren bidez. Norbanako bezala bazen ere, Ikastolen Elkartea, Sortzen-Ikasbatuaz, EHIGE, LAB, STEILAS eta IA-ko kide esanguratsuek parte hartzen zuten, Hik Hasi aldizkariaren dinamizazioaz. Eremuz eremu diagnostikoa egin eta akordioak eraikitzea zen asmoa. Hizkuntzaren arloan akordioa lortu zen (1999) baina autonomiaren gaian blokeatu egin zen gogoeta dinamika hau.

Bigarren saiakera, Nazio Eztabaida Guneak sustatu eta berriro ere Hik Hasi dinamizatutako “Oinarrizko Hezkuntza Akordioa” (2007) izan zen. Bertan publikotasun kontzeptu berria proposatu zuten sinatzaileek, horizontalagoa, deszentralizatuagoa eta komunitatearen parte hartzeari irekiagoa. Halere, esan beharra dago ekarpen honek ez zuela izan egungo eskola publikoetako sektore esanguratsuren babes (EHIGE, STEILAS).

Unibertsitateari dagokionez, Euskal Herriko unibertsitate desberdinak bilduko lituzkeen “Barruti Bateratua” (nolabaiteko sare komun bat) osatzeko saiakera egin zen herri ekimenaren bidez. Alabaina, unibertsitate desberdinetako zuzendaritzek ez zuten ideia hau garatzeko borondaterik izan. Horren ordez, EHU eta NUP G-9 unibertsitate taldean integratu ziren (1997), Kantabria, Gaztela-Mantxa, Extremadura, Illes Balears, Errioxa, Oviedo eta Zaragozako unibertsitate publikoekin batera. Bestalde, 1997an Mondragon Unibertsitatea sortu zen, izen bereko kooperatiba elkartearen ekimenez. Amaitzeko, 2004ko EAEko legebiltzarrak onartutako “euskal unibertsitateen sistema” legearen bitartez, irakasleria propioa garatzeko bidea ireki zen.

Hezkuntza sistema propioa eraikitzeke estrategia berritzeko ahalegin hauekin batera, zenbait esperientzia praktikoa aipatu beharra dago:

- ★ Hik Hasi aldizkari pedagogikoaren sorrera (1994). Desegituratuz joan zen 80. hamarkadako berrikuntza mugimenduen lekukoa hartu eta, aipatu bezala, hezkuntza sistema propioaren eraikuntzan ekarpena egin du.
- ★ Euskal Curriculum osatzeko egitasmoa (2003tik aurrera). Udalbiltza, Ikastolen Elkartea eta Sortzen-Ikasbatuaren arteko hitzarmen batek jarri zuen abian Euskal Curriculum osatzeko prozesua eta gerora EAEko Hezkuntza Sailak ere parte hartu zuen. Ikastolen Elkartek garatu du nagusiki egitasmo hau, EKI izeneko proiektu praktikoa sortuz.

- ★ Murgiltze ereduaren garapena (2000tik aurrera). A eta B ereduak ez dutela euskalduntzen eta D ereduak ere hainbat eskualdeetan ez nahikoa denaren kontzientzia hedatuz joan zen hezkuntza eremuan. 2000. urtean osatutako Bilgunea plataforman bat egin zuen LAB, ELA eta STEILASek osatutako gehiengo sindikalak, eskola publikoko EHIGE guraso elkarteak, Sortzen-Ikasbatuazek nahiz Ikastolen Elkarteak, besteak beste. 2008. urtean, Kontseiluak ikasle euskaldun eleanitzak hezitzeko proposamena aurkeztu zuen, hezkuntza komunitatean babes zabala lortu zuena, bereziki EAEn.
- ★ Hizkuntza eta nazio komunitatearen egituratzaile litzatekeen Euskal Unibertsitatea sortzeko saiakera garrantzitsu bat egon zen garai honetan. Hainbat urtetako lanaren ondotik, 2008. urtean UEU, AEK, EKT, Elkar Fundazioa, Ikastolen Elkarteak, Ipar Hegoa Fundazioa, Kontseilua eta Nazio Etabaidaguneak Euskal Unibertsitatea Fundazioa sortu zuten, campus bat egituratzeko asmoarekin. Saiakera horrek, ordea, ez zuen aurrera egiterik izan.

Esperientzia hauetako askok izaera nazionala bazuten ere, esan beharra dago hauen sorrera eta garapena batez ere EAEko esparru administratiboan kokatu zirela. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, D ereduaren zabaltzeko administrazioak jarritako oztupoak gainditzeko borroka izan zen lehentasunezkoa garai honetan zehar. Nafarroaren kasuan, Sanz eta Barcinaren agintaldiekin euskararen kontrako jarrera erasokorra indartu zen. Zuzeneko konfrontazioaren arrakasta mugatua ikusita, zeharkako estrategia lehenetsi zuen UPNk, ingelesaren irakaskuntzaren aitzakiaz D ereduaren hazkundea mugatzeko asmoz; neurri batean lortu zuen bere helburua.

Naziogintzari lotutako dinamikez gain, beste bi fenomenok eraldatu zuten Euskal Herriko hezkuntza esparrua garai honetan zehar: bigarren immigrazio olatu handia eta iraultza digital-kulturala. Lehenengoari dagokionez, 2000-10 hamarkadan zehar milaka lagun iritsi ziren gurera. Horrela, 2011n Euskal Herriko biztanleriaren %9 inguru estatu(eta)tik kanpo jaioa zen, hain zuzen Nafarroako biztanleen %11,2a, EAEkoen %8a eta Ipar Euskal Herrikoen %6,9a. Haien jatorria nagusiki Latinoamerika zen (%44,5), Afrika (%19,3), Asia (%7,5) eta Europako ekialdea (%5,0), gerratik ihesi batzuk eta lan duin baten bila besteak. Mugimendu hau hurrengo urteetan zerbait apaldu zen, eta eskualde batzuetan, bereziki Nafarroan, immigranteen kopurua zertxobait jaitsi da azken urteetan. Kanpotik iritsitako herritar hauen seme-alabak eskolan matrikulatzeak kultur aniztasunari ekarpen egin dio zalantzarik gabe. Alabaina, horietako gehienak eskola publiko jakin batzuetan kontzentratu eta aniztasun horri guztiari erantzun egokia emateko baliabide faltak segregazio prozesuak eragin ditu hainbat hiriguneetan.

Bestalde, internet, telefono mugikor eta bestelako teknologien hedapenak iraultza digital-kultural izugarria eragin du. Gaurko gazteen bizi ohiturek, jokabide sozialek eta erreferentzia kulturelek zerikusi gutxi dute etxean telefono finkoa eta telebistan bi kate besterik ez zuen belaunaldiarekin alderatuta. Esan liteke berritasunak eta aldaketak bilatzeko kezka egon badagoela guraso, irakasle nahiz ikasle berrien artean, baina erantzunak ikuspegi kolektibo batetik baino gehiago (Herria, auzoa, hezkuntza sistema) ikuspegi indibidualago batetik artikulatzen ari direla (ikaslea, familia, ikaskuntza prozesua).

2008tik aurrera. Krisi sistemikoa, inboluzio sozial orokorra. Espainiako estatuan, inboluzio politikoa. Gatazka armatuaren amaierarekin, gatazka politikoa koordenada berrietan.

2008. urtea mugarriztat jo dugu bi arrazoiengatik. Batetik, krisi sistemikoak (ekologikoa, ekonomikoa, soziala, politikoa) sakon astindu ditu, munduko herrialde ezberdinak eta baita Euskal Herria ere. Langabeziaren hazkundea migrazio mugimenduak moteldu egin ditu neurri handi batean edo, hobeto esanda, norabidez aldatu ditu: beste kontinenteetatik etorritako asko euren herrialdeetara bueltatu dira, Euskal Herrian hazitako hainbat eta hainbat gazte Europara lan bila joan diren bitartean. Edozein kasutan ere, Euskal Herrian lan eta bizitzeko jarraitzeko hautua eginga dute kanpoan jaiotako milaka lagunek eta, lehen aipatu bezala, nagusiki eskola publikoan hazten ari dira euren haurrak.

Banketxeak erreskatatzeko dirua zerbitzu eta prestazio publikoak murriztuz atera zen. Honela, inoiz ez bezalako murrizketak ezarri zituzten Gobernuak, besteak beste irakaskuntzan. Munduko beste herrialdeetan bezala, pribatizazioaren aldekoa

1. G-9 delakoaren oinarrian, honako ezaugarri hau dago: elkarteko 9en kasuan, bakoitzaren erkidegoan dagoen unibertsitate publiko bakarra da.
2. Gaindegia datuak erabiltzen ari gara, Hegoaldean Espainiako estatutik kanpo jaiotako portzentajeak dira, eta Iparraldean Frantziako estatutik kanpokoena (horrek sortzen dituen distorsioekin).

agenda neoliberal indartu egin zen Espainia nahiz Frantziako estatuetan. Pentsioak edo osasun arloa bezala, hezkuntza jarduera bera nahiz hezkuntzaren jarduera osagarriak (jantokiak, garbiketa) negozio eremu bihurtzeko presioa areagotu zen. Era berean, lan merkatuaren beharren arabera selekzio prozesuak indartzeko presioa areagotu zen bai lanbide heziketan baita unibertsitatean ere, azkenaren kasuan Bolonia prozesuak Europa mailan ezarritako irizpideen arabera.

Horren aurrean, zerbitzu publikoak eta horren baitan hezkuntza publikoa defendatzeko mugimenduak sortu ziren, bai ikuspegi sindikaletik baita ikuspegi sozialetik ere. Irakaskuntza, zerbitzu publikoetan nahiz maila konfederalean greba ugari egin ziren, dozena inguru bospasei urtetan. Nafarroan, gainera, UPNren Gobernu eta Erregimena behera botatzeko borroka orokorrek uztartu egin ziren murrizketen kontrako dinamika, arrakasta handiarekin egin ere.

Honen eraginez, esan liteke publikotasun eredu berriaren inguruko eztabaida baino, egun dagoen eskola publikoaren defendatzeko beharra gailendu dela fase honetan zehar. Baina era berean, krisi ekologiko eta ekonomikoaren aurrean, autogestio dinamika eta proposamen berritzaileak sortu dira, hala orokorrean (kooperatiba integralak, kontsumo taldeak, energia kooperatibak, alternatibak herria eta abar) nola hezkuntza eremuan. Eskola libreen berpiztearekin batera, pedagogia aktiboaren aldeko joerak sumatzen dira hainbat eta hainbat ikastetxeetan, baita jantokiak berreskuratzeko gogoak (jantokitik jangelara proposamenean islatu dena) edota Herri Hezitzailea bezalako ekimenak. Ikasle mugimenduari dagokionez, mobilizazio handiko garaiak tartekatuta dira beste apalago batzuekin; era berean, klase borrokaren ikuspegi abangoardista garatzea proposatzen duten sektoreen eta ikasle mugimenduaren ildo historikoari jarraiki askapen nazional eta sozialaren terminoetan aritzearen aldekoen arteko eztabaida sutua eman da.

Bestetik, borroka armatuaren amaierarekin, ziklo politiko berri bat ireki da Euskal Herrian eta, horren eraginez, sakoneko berrikuntzak ezagutu ditugu: ilegalizazio garaia gaintze erlatiboa (Mozal Legea eta Altsasukoa bezalako kasuak gogoan), indar politiko espainolisten ahultzea, Nafarroako aldaketa instituzionala edota Ipar Euskal Herriaren instituzionalizazioa, besteak beste. Aldaketa hauek guztiek hezkuntza sistema propioaren alde urratsak emateko baldintzak hobetu dituzte.

Alabaina, Espainiako Estatutik datozen hezkuntza diseinuak kontrako norabidean doaz. Rajoyren LOMCE, Aznarren LOCEk irekitako ildoan sakontzera dator. Kataluniako eta Euskal Herriko ikasleak espainolizatzeko asmo aitortua ez ezik (Wertek dixit), hezkuntza elite ekonomikoaren beharretara egokitzeko asmoa dago horien oinarrian. Unibertsitatean ere selekzio prozesuak indartu eta ekonomiaren etengabeko eraldaketak behar duen lan-esku kualifikatu malgua eta mugikorra sortzeko asmoz Bolonia prozesua ezarri da.



iruten

2. NON GAUDE

Ibilbide historiko hau kontutan hartuz, aipa ditzagun, lehenik eta behin, hezkuntza sistema propio eta askatzailea sortzeko norabidean egun ditugun indargune eta aukera nagusienak:

- ★ Hezkuntza eredu propio bat garatzeko gogo eta asmo sendoa dago euskal jendartearen sektore askotan. Hezkuntzari dagokionez (ere) Euskal Herrian ibilbide propio bat egin da eta kapital metatu garrantzitsu bat daukagu.
- ★ Hezkuntzarekiko kezka eta interes handia dago euskal jendartearen aldetik. Ikastetxeek interakzio sozialaren gune nagusietako bat izaten jarraitzen dute. Herri txikietan, bertako eskolari eusteko gogo eta bultzada nabaria da. Hezitzaile izan nahi duten milaka herritar daude.
- ★ Hego Euskal Herrian, LOMCEren kontrako jarrera kasik erabatekoa da. Ipar Euskal Herrian, instituzio propio bat sortu izanak aukera ematen du hezkuntza eremuan inplikatu dadin aldarrikatzeko.
- ★ Euskarazko irakaskuntza errealitate sendo bat da. Nazio hegemonikoaren ikuspegitik onartezina den errealitate hau ontzat eman behar izan du Espainiako Estatuak, Hego Euskal Herria integartzeko saiakeran. Eta Frantziako estatuak ere, eskola publikoetan B eredu basterik baimentzen ez badu ere, ikastolen errealitatea aintzat hartu behar izan du. EAEn, euskarazko irakaskuntza hegemonikoa bilakatzeko bidean da eta murgiltze ereduak ezartzeko adostasun handia dago hezkuntza komunitatearen baitan.
- ★ Unibertsitatean ere euskarazko irakaskuntza zabaltzen ari da, euskaraz lan egiten duten langileen nahiz euskaraz ikasten duten gazteen kopurua handituz. Euskararen garapen akademikoari ekarpen egin zaio bai unibertsitate formaletatik baita UEUtik ere.
- ★ Curriculum ofizialek diotena diotela, Euskal Herriko ikastetxe askotan Euskal Herriko ikuspegitik jorratzen da hezkuntza. Euskal Curriculumak hezkuntza eragile desberdinen artean adostu zen eta Ikastolek horren garapen praktikoa egin dute.
- ★ Hego Euskal Herriko eskola publikoa nabarmen eraldatu da, irakasle eta guraso belaunaldi berrien bulkadaz. Askotariko egitasmoak sortu dira ikastetxez ikastetxe. Euskalduntzean ere aurrerapausu ikusgarriak eman dira, bereziki EAEn; euskaraz ikasten duten haur gehienek sare publikoan egiten dute.
- ★ Ikastolen Elkartek dinamismo pedagogiko handia izaten jarraitzen du eta aitzindaria da hainbat arlotan, esaterako Euskal Curriculumari dagokionean. Euskal Herri osoan presentzia duen hezkuntza sarea izanik, nazio ikuspegia elikatzen du.
- ★ Pedagogia aktiboekiko atxikimendua berpizten ari da. Hezkuntzarekiko kezka egon badago guraso, hezkuntzako langile nahiz herritarren artean, bai ohiko eskoletan (publiko nahiz ikastoletan) baita horietatik kanpo ere, eskola libre nahiz hezkuntza ez formaleko egitasmoetan. Eskola esperientzia alternatiboak hedatzen ari dira. Berrikuntza hauek zenbait eskola pribatu-erlijioso ere bustitzera heldu dira.
- ★ Nafarroan egondako aldaketa instituzionalak, hezkuntza eremuan ere erresistentziaz erakuntzara igarotzeko baldintzak ekarri ditu. Bigarren legegintzaldi bat egonez gero, egiturazko aldaketei ekiteko aukera legoke.
- ★ Azken urteotako aldaketa politiko-instituzionalen ondorioz, Euskal Herriko administrazio ezberdinen arteko elkarlana garatzeko aukera handiagoak daude, baita hezkuntza eremuari dagokionez.

Eta, bestalde, gure ahulgune eta mehatxuak:

- ★ Hezkuntza komunitatean LOMCEren aurkako jarrera nagusi bada ere, Hego Euskal Herriko instituzioek aplikatu egiten dute; EAEren kasuan, Heziberri egitasmoaren mozorroarekin bada ere.
- ★ Lehen aipatutako lurralde ezberdinetako administrazioen eta hezkuntza komunitatearen arteko elkarlanerako auke-rak ez dira behar bezala baliatzen ari. Hala irakaskuntza ez unibertsitarioan nola unibertsitatean Euskal Herri mailako elkarlana oso apala da. Ez dago herri ikuspegitik hezkuntza jorratzeko esparru nazionalik.
- ★ Kapitalismoak hezkuntzan duen eragina nabarmena da. Pribatizazioak sustatzeko estrategia globala dago. Etengabeko lehia eta neurketa sustatzen da (PISA, rankingak, “kalitate” neurgailuak).
- ★ Euskaraz ikasteko eskubidea ez dago onartuta Euskal Herriko eremu askotan. Eskualde askotan, ikasle gehienek ez dute euskaraz aritzeko gaitasuna eskuratzen derrigorrezko eskolaldia amaitzerakoan. Eta euskaraz ikasita ere, eskualde gehienetan belaunaldi berriak nagusiki erdaraz bizi dira, testuinguru diglosikoaren presiopean (internet, globalizazioa, errealitate soziolinguistikoak).
- ★ Ikastetxe ugarian eta areago hainbat eskualdetan Euskal Herria bere osotasunean ez da existitu ere egiten. Euskal Herria kontzeptuaren kontrako fobiak indarrean daude toki askotan.
- ★ Berrikuntza pedagogikoa burutu zuen irakasle belaunaldi militantearen ondotik, titulazioak izan bai baina desegitura-tuagoa eta despolitizatuagoa den belaunaldia dugu. Gainera, irakasleriaren ezegonkortasun ezak hezkuntza egitasmo sendoak garatzea oztopatzen du.
- ★ □ Hezkuntza komunitatearen parte hartzea nahiz hezkuntza erakundeen eragiteko gaitasuna apaldu egin da. Gurasoen artean hezkuntzarekiko kezka egon badago baina kasu askotan interesgunea maila kolektibotik indibidualera igaro da. Era berean, prekarietatearen hedapena, langile klaseko gurasoen parte hartzerako oztopo da.
- ★ Irakasleriari dagokionez, indibidualismorako joerek ere eragina izan dute esparru honetan. Horrez gain, ikasle mugimenduaren eta hezkuntza mugimenduaren arteko elkarlana garatzeko baldintzak okertu dira. Hamarkadetan zehar nazio askapen borroka ulertzeko izandako modua alboratu eta klase borrokaren inguruko ikuspegi abangoardistan kokatu da IA.
- ★ Gaur egun Espainiako estatuan dagoen sistema dualean (eskola publikoa batetik eta itundutako eskola nagusiki erlijiosoa bestetik) ezberdintasunerako aukerak areagotzen dira, askotan familiak sailkatuz klase soziala, jatorria edota erlijioaren arabera. Euskal Herrian, bere ñabardurekin, arazo hori dugu ere: sare publikoaren eta kontzertatuaren arteko desoreka, sektore prekarioen nahiz etorkinen segregazio larria eragiten ari da, bereziki hainbat eskualdeetan .
- ★ Oro har, ez zaie behar bezalako erantzunik ematen segregazio eta diskriminazio mota ezberdinei. Klase jatorriaren arabera ez ezik generoaren, hizkuntzaren edota norberaren gaitasun/desgaitasunen arabera bereizketak ematen dira.
- ★ Hego nahiz Ipar Euskal Herrian indarrean dagoen eskola publiko eredu zentralizatua da. Administrazioa da eskola publikoak kudeatzen dituen eta hezkuntza komunitatearen autonomia eta parte hartzea mugatua da.
- ★ Hezkuntza sistema propio bat eraiki nahi duten sektoreen artean publiko/pribatu eztabaidak desadostasunak eta zatiketa-giroa eragiten jarraitzen du.

3. Gasteizen kasua da ezagunena: haur eta lehen hezkuntzan, Espainiako Estatutik kanpo jaiotako ikasleen %92 eskola publikoetara doaz; zortzi eskola publikotan, lehen hezkuntzako ikasleen %50 baino gehiago Espainiako Estatutik kanpo jaiotako da.

iruten

3. NORA GOAZ

Krisi sistemikoa eta aldaketa etengabea

Erronka potoloak ditugu, zalantzarik gabe, datozen urteetan. Kapitalismoaren garapenak askotariko krisiak sortzen ari da: prekarizazio eta pribatizazio prozesuak, zaintzaren krisia, indarkeria sexista, gerra inperialistak, hondamendi ekologikoa nahiz erregai fosilen amaiera, migrazio mugimendu erraldoiak. Egiturazko arazo larriei eta erronka kolektibo estrategikoei egin behar dio aurre gure jendarteak. Baita hezkuntzatik ere.

Horrekin batera, aldaketa etengabearen sentsazioa nabaria da. Ideiak eta bizimoduak egunetik egunera aldatzen dituen munduan bizi garela ematen du. Mass mediak, sare sozialek eta etengabeko berrikuntza teknologikoez ezarritako erritmo frenetikoan mugitzen gara. Oinarritzko baloreak eguneratzeko ahalegin etengabearen aritu behar dugu askatasun eta justizian sinesten dugunok. Baita hezkuntzan ere.

Indar neoliberalak jendartea oro har eta zehazki hezkuntza esparrua merkantilizatzeko eta euren beharretara moldatzeko ahalegin etengabearen dira. Bada garaia ezkerretik alternatibak garatzeko, hala orokorrean nola hezkuntza esparruan.

Hezkuntza burujabetza vs. Inboluzioa

Herri bezala erronka handiei aurre egin behar diogu, baita hezkuntzatik ere, baina ez dugu horretarako beharrezko baliabiderik. Euskal Herriari oro har eta hiru lurralde esparruei zehazkiago hezkuntza sistema propioa egituratzeko eskubidea ukatu egiten zaio. Honela, Frantziako eta Espainiako estatuen eta euren hezkuntza sistemen eraginpean gaude.

Espainiako Estatuan inboluzio autoritario eta zentralista gertatzen ari da. PSOEk krisiari aurre egiteko neurriekin hasi zen prozesua (murrizketak, sektore publikoa mugatzeko legedia, 135. artikulua erreforma eta negoziazio kolektiboaren estatuzkoari bide ematea); PPren lehen gobernuarekin sakondu zen (LOMCE, arau fiskalak); eta Kataluniaren kontrako oldarraldiarekin azkartu daitekeela ematen du. EAE eta Nafarroan dauzkagun hezkuntza eskumen mugatuak arriskuan daudela esatea ez da gehiegikeria bat.

Hezkuntza itunaren hotsak datoz Espainiatik eta ematen du itun hori zentralizazioaren norabidean planteatzen dela. Frantziako Estatuak, bere aldetik, eutsi egiten dio estatu eredu eta hezkuntza sistema zentralizatuari.

Honela, hezkuntza eredu propioaren norabidean espazioak irabazi baditugu ere, hezkuntza burujabetza osoa eskuratzea ezinbestekoa da aipatutako erronkei aurre egiteko. Euskal Herriko hezkuntza ereduak Euskal Herriko hezkuntza komunitateak, jendarteak eta instituzioek adostu behar dute. Horixe da edozein hezkuntza akordio edo itunerako oinarritzko premisa.

Hezkuntza ereduaren inguruko balizko herri akordioa(k)

Hezkuntza ereduaz erabakitzearen eskubidea defendatzearekin batera, zer nolako hezkuntza ereduak garatu nahi dugun adostu beharra dugu Euskal Herrian oro har eta esparru administratibo bakoitzean zehazkiago. Txosten honetan, LABek bere hezkuntza proposamena biltzen du eta gainontzeko eragileek ere badute berea egiteko aukera. Hezkuntza komunitatean, jendartean nahiz instituzioetan eztabaidatu eta bilatu beharko ditugu adostasunak.

EAEen balizko hezkuntza itun baten inguruko eztabaida irekita dago. LABen ustez, Eusko Jaurlaritzak egin duen oinarrien proposamenak ihes egiten dio burujabetzaren eztabaidari eta ondorioz ontzat ematen du egungo menpekotasun egoera, baita bi hezkuntza-saretan oinarritutako eskema. Ikastetxeen autonomia handitzeaz mintzo da baina baliabideak handitu gabe. Ikasle guztiek B2 maila eskuratzeko helburua jartzen du baina ez du murgiltze ereduaren aldeko jarrera argi adierazten.

Euskal Curriculumari eta berrikuntza pedagogikoari izkin egiten dio. Eta albo batera uzten ditu feminismoaren nahiz justizia sozialaren inguruko oinarrizko eskakizunak, hezkuntza androzentrikoa eta segregazioa betiketuz.

Nafarroan, berriz, hamarkadetan zehar Erregimenak kudeatutako Hezkuntza Saila Geroa Bairen esku dago eta Aldaketaren laukoaren babes behar du. Gainera, aldaketaren aldeko gehiengo sindikala egon badago. Horrek aldaketarako aukerak ematen ditu baina orain arte ez da apenas urratsik eman. Geroa Bai uzkur azaltzen da eta Izquierda-Ezkerrak Troyaren zaldia egiten du euskararekin lotutako gaietan.

Ipar Euskal Herrian, azkenik, lehen instituzio propioa sortu da. Horrek hezkuntza esparru propioa aldarrikatu eta jorratzeko aukerak areagotzen ditu.

Testuinguru honetan, Euskal Herriko askapen prozesuan eta baita euskal hezkuntzaren eraikuntzan ekarpen funtsezkoa egin duten Ezker Abertzaleak eta zehazkiago LABek badute zer eginik. Zutik Euskal Herriak eta Abianek finkatutako estrategia berrituaren argitan, hezkuntza sistema propioa eraikitzeke estrategia ere berritzea dagokigu. Horretarako, lehenik eta behin, hezkuntza egitasmoa eguneratu beharra dago; horretara dator, hain zuzen ere, txosten hau.

4. LABen HEZKUNTZA EGITASMOA:

hezkuntza sistema burujabea, euskal eskola publiko komunitarioa ardatz

Gure ortzimuga estrategikoa honako hau da: pertsona libreak hazi eta heziko dituen jendarte libre. Horretarako, Euskal Errepublikak Konfederalaren baitan, eskola publiko komunitarioa ardatz izango duen hezkuntza sistema propioa eraikitzeke apustua egiten dugu. Norabide horretan, esan bezala, ezinbestekoa da hezkuntza burujabetza eskuratu eta behar dugun hezkuntza eredu gaurdanik garatzea, ditugun indarguneak baliatuz eta ahulguneei aurre eginez. Zehazki, honako hauek dira LABek defendatzen duen egitasmo estrategikoaren ardatzak:

Hezkuntzaren gaineke ikuspegi integral, askatzaile eta burujabea aldarrikatzen dugu.

- » Integrala: Jaiotzetik eta bizitza osorako; hezkuntza formala, ez-formala eta informala kontutan hartuta; halere, 0-18 epealdiak garrantzia berezia dauka, adingabeke guztiei oinarrizko hezkuntza eskubidea bermatzeari begira .
- » Askatzailea: belaunaldi guztiekin eta bereziki berriekin zampaketarik gabeko mundu bat sortzeko prozesua izan behar da hezkuntza. Patriarkatua deusezteko, feminismoa; klasetan banandutako jendarte gaitzeko, sozialismoa; arrazismoa, inperialismoa eta nazio zampaketaekin amaitzeko, internazionalismoa; Ama Lurrarekiko begirunean oinarritutako garapenerako, ekologismoa. Horiek dira gure erreferentzia estrategikoak.
- » Burujabea: Hezkuntza burujabetza aldarrikatzen dugu, bi zentzutan: euskal ikasle/herritar burujabeak hezteko; jendarte burujabea garatzeko.

Nazio askapen mugimenduak hezkuntzari buruz izan duen ortzimuga estrategikoa berreskuratu/in- dertu nahi dugu: euskal eskola publiko komunitarioa ardatz izango duen hezkuntza sistema propioa.

- » Hezkuntza sistema propioa: Euskal Herriak bere hezkuntza sistema propioa izateko eskubidea du. Bertako herritarrok, hezkuntza komunitateak nahiz herri instituzioak gara hezkuntza ereduaren gaineke erabakiak hartu behar ditugunok, inongo muga edota inposaketarik gabe. Euskal Herrian adostu eta erabaki behar da, besteak beste, irakaskuntzaren antolaketa orokorra, curriculum komuna nahiz ikastetxe guztiek bete beharreko oinarrizko irizpideak.
- » Euskal eskola publiko komunitarioa: Inposatu zaigun Espainia nahiz Frantziako publikotasun eredu zentralizatuaren

4. Adingabeke aritzean 0-18 epealdia aipatzen da, egun horrela ezartzen delako, baina jakina, etorkizuneko Euskal Errepublikan bestelako aukera bat egin liteke.

5. Udallerri populatuaren kasuan izan ezik, kudeaketarako eskala egokiena eskualdea dela deritzogu. Horregatik aipatzen ditugu, udalak ez ezik, udal mankomunitateak. Halere, etorkizuneko Euskal Herriaren antolaketa politikoan, eskualdearen ideian sakontzea interesgarria izan liteke hainbat eremu kudeatzeko, hezkuntza besteak beste.

aurrean, Euskal Herrirako publikotasun eredu komunitario/komunal/autogestionatu/herritarra defendatzen dugu. Diru publikoz osoki finantziatua eta ondorioz doakoa.

- » Bestelako eskolak: euskal eskola publiko komunitarioaz gain, eskola pribatuak sortzeko aukera egongo da, beti ere oinarritzko arau batzuk zorrozki beteta (parekidetasuna eta euskalduntzea besteak beste) . Eskola hauek ez dute diru publikorik jasoko.

Lurralde antolaketari dagokionez, Euskal Herriko Errepublika Konfederalean, udalen sarea, hiru hezkuntza administrazio eta hiruek partekatutako hezkuntza sistema edo eremu komuna aurreikusten dugu.

Gaur egun bi hezkuntza sistema ditugu, espainiarra eta frantsesa; lehenengoa kudeatzeko, bi hezkuntza administrazio daude, EAE eta Nafarroa. Sortu nahi dugun Euskal Herriko Errepublika konfederalean hiru maila aurreikusten dugu:

1. Oinarritzko maila udal eta udal mankomunitateek (edota eskualdeek) osatuko dute. Hauek lukete kudeaketarako eskumena 0 urtetik batxiler eta lanbide heziketaraino. Horretarako nahikoa finantziarioa jasoko dute hezkuntza administrazioaren aldetik.
2. Hiru hezkuntza administrazio, Errepublika osatuko duten estatu bakoitzeko bana (EAE, Nafarroa, Ipar Euskal Herria) . Administrazio hauek hezkuntza sistema koordinatu, dinamizatu eta gainbegiratu dute.
3. Euskal Herri osorako hezkuntza esparru edo sistema komuna: hezkuntza eragile guztien partaidetzaren bitartez etengabe eguneratzen den euskal curriculum komuna, baliokidetzeta eta mugikortasun sistemak, unibertsitate esparru bateratua e.a.

Hezkuntza sistemaren ardatza izango den eskola publiko komunitarioan, udal titularitatea (0 urtetik batxiler eta lanbide heziketaraino) luketen herri eta auzo eskola autogestionatuak aurreikusten ditugu.

Ezagutzen ditugun hezkuntza administrazioen kudeaketa zentralizatuaren aldean, egitura deszentralizatu defendatzen dugu. Eskola bakoitzeko hezkuntza komunitateak izango du hezkuntza egitasmoaren gaineko erabakiak hartzeko eskumena. Udala edo udal mankomunitatea (edota eskualdea, lehen aipatu bezala) litzateke ikastetxearen titularra (eraikinen jabea nahiz kontratazioen subjektu legala) eta hezkuntza komunitatea berriz hezkuntza egitasmoaren subjektua edo "titularra". Eskola herriari irekia eta herrian integratuta legoke, herri eragileekin elkarlanean Herri Hezitzailea osatuz. Edozein kasutan ere, kontutan hartuz Euskal Herriko herri eta auzo ezberdinen antolaketa eta dinamismo maila ezberdina dela, hezkuntza administrazioak laguntza berezia eman beharko lieke ahalmen txikiagoa duten horiei.

Euskara izanen da hezkuntza sistemaren hizkuntza nagusia. Ikastetxea euskaraz biziko da eta langile guztiak euskaldunak izanen dira.

Helburua ikasle euskaldun eleanitzak sortzea izanen da eta euskaraz gain, ikasle guztiek gutxieneko gaitasuna lortuko dute gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Ikastetxea euskaraz biziko da eta hezkuntzako langile guztien lan hizkuntza euskara izango da. Bertako euskalkiak bere trataera izanen du. Eskolako ikasleek bestelako ama-hizkuntzarik balute, hezkuntza prozesuan horiek barne bildu eta aberastasun gisa jorratuko litzateke.

Euskal Curriculumean eta pedagogia aktiboetan oinarritutako hezkuntza eredu aldarrikatzen dugu

- » Bizitza erdigunean jarriko duen eta justizia sozialean oinarrituko den jendarte eredu baterako baloreak lehenesten

6. Jakina, antolaketa politikoaren garapenaren arabera moldatu egingo litzateke ere hezkuntza administrazioa, esaterako EAE osotasun bat baino, herrialdeka antolatuko balitz

7. Hezkuntza Komunitateaz aritzean, eskolarekin binkulatutako pertsona guztiak ditugu gogoan: ikasleak, familiak eta eskolak jardun dezan beharrezkoak diren langile guztiak (irakasleak, atezainak, jantokiko langileak eta abar).

ditugu: kooperazioa, kolektibitatea, desberdinen arteko parekidetasuna, parte hartzea, inklusibitatea, doakotasuna, hezkidetzak, demokrazia, justizia soziala, ekologismoa, laikotasuna, feminismoa, norberarekiko, besteekiko nahiz ingurumenarekiko errespetua, kritikotasuna.... Hezkuntza askeagoaren alde egiten dugu, dogmatismorik gabe, irekiagoa eta malgutasun gehiago izango duena. Sormenari, arteari eta gorputz-adierazpenari garrantzi gehiago emanez.

- » Herri partaidetzaz egindako eta etengabe berritutako Euskal Curriculum komuna aurreikusten dugu. EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko administrazioek osatu dezakete Curriculum komun hori, nor bere esparruan, beti ere parte hartzearen irizpide berari eutsiz. Udalerri/eskualde mailan, tokiko ingurune sozial eta naturalaren arabera tokiko curriculumak landuko dira, bertako ikastetxe ezberdinen parte hartzeaz. Hezkuntza formala, ez-formala eta informala uztartuko dira, Herri Hezitzaileen filosofiari jarraiki. Ikastetxea herrian integratua egonen da eta herriko eragileekin elkarlana sustatuko da.
- » Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza egitasmoa izango du, bertako hezkuntza komunitateak erabakitakoa. Hezkuntza egitasmo horren arabera prestakuntza espezifikoak eskatuko zaie bertako irakasle eta langileei. Horretarako, administrazioak edozein irakaslegai nahiz jarduneko irakaslekin egin ahal izango dituen moduluak eskainiko ditu. Bestelako hezkuntzako langileei ere prestakuntza bermatuko zaie. Jangelen eredu berria ikastetxetako hezkuntza proiektuan txertatuko da: eskola bat, sukalde bat.
- » Hezkidetzak izango dira hezkuntza jardueraren ardatzak. Feminismotik birpentsatu egingo dira hezkuntza jarduerak osoa, hasi espazioen antolaketatik eta helburu pedagogikoen formulazioraino.
- » Hezkuntza prozesua pedagogia aktiboetan oinarrituko da. Ikuspegi pedagogikoari dagokionez, konpetentzietan oinarritutako pedagogia aktibo eta ez autoritarioen aldeko apustua egiten dugu. Ikaslea izango da hezkuntza prozesuaren subjektu nagusia. Errespetuz jokatu behar da ikasle bakoitzaren behar eta bizi prozesuarekin. Txikitatik erabakiak hartzeko eta erabaki horien kargu egiteko aukera izan behar dute ikasleek.
- » Ebaluazioa, ikasle bakoitzaren konpetentziak garatzera bideratuko da, bakoitzaren erritmo eta beharretara egokitzuz. Kalifikazioa eta azterketen ereduak gainditu eta konpetentziak garatzera bideratutako ebaluazio ereduak ezarriko dira. Era berean, hezkuntza sistemaren ebaluazio integralari garrantzia emango zaio, ranking eta bestelakoak sortzeko baino, hezkuntza sistemari jartzen dizkiegun helburuak betetzeari begira neurriak hartzeko.
- » Hezkuntza, kolektibitatearen beharrei begira. Hezkuntza prozesuaren edukia eta garatzeko gaitasunak Euskal Herriko jendartearen beharrei begiratu behar du, era planifikatu baina, aldi berean, malgu batean; eta ez, gaur egun neurri handi batean gertatzen den bezala, kapitalistek etekinak handitzeko lehenesten dituzten ildoen arabera.

Langileria dagokionez, prestakuntza, aitortza soziala eta lan-baldintza egokiak bermatuko dira.

- » Prestakuntzari dagokionez: irakaslegai nahiz hezkuntzako gainontzeko langilegai begira, ikasketa eta lan tutorizatuak uztartu; prestakuntza jarraia curriculum orokorraren nahiz ikastetxe bakoitzeko hezkuntza egitasmoaren arabera antolatu; irakaskuntza ikasketan sartzeko iragazkiak eta profil egokitasun neurketak.
- » Kontratazioari dagokionez: dagokion instituzioak (0 urtetik batxiler eta lanbide heziketaraino, udalek eta udal komunitateek) gauzatu behar du kontratua baina profilaren zehaztapena nahiz kontratazio prozesuaren kudeaketa, dagokion instituzioak eta hezkuntza komunitateak elkarlanean egingo dute. Gaitasun, berdintasun eta merituan oinarritutako prozesu garden eta eraginkorak diseinatuko dira.
- » Lan baldintzei dagokionez: haur eta lehen hezkuntzako langileen aitortza eta lan baldintzak, bigarren hezkuntzako-

kin parekatu, formazio baliokidea eta lan berdina eskatuko zaien heinean. Lan berdina=Lan baldintza berdina=Soldata berdina, hezkuntzako langile ororentzat.

5. TRANTSIZIORAKO PROPOSAMENA:

hezkuntza sistema burujabearen eta euskal eskola komunitarioaren bidean

Erronka bikoitza dakusagu datorren epealdian: batetik, hezkuntza sistema burujabea eratzea Euskal Herria osatzen duten hiru lurraldeetan; bestetik, euskal eskola publiko komunitarioa eratzea, hezkuntza sistema horren ardatz gisa.

Jakina, erronka estrategiko hauek ezin dira hezkuntza esparruan modu isolatuan garatu. Aitzitik, Euskal Herrian aldaketa sozial eta politikoa gauzatzeko burujabetza prozesuarekin uztartu beharra dago hezkuntza eremurako proposamenak. Izan ere, maila politikoan burujabetzarako atak ireki ezean, hezkuntza eraldaketaren norabidean urratsak eman bai baina ez da posible izango hezkuntza sistema propioaren eta euskal eskola publiko komunitarioaren eraikuntza bururaino eramatea (ikusi eskema).

5.1 Hezkuntza burujabetza eskuratu, hezkuntza sistema propioa eraikitzeko

Hezkuntza sistema burujabeak eratzeari begira, EAeko nahiz Nafarroako estatus berriek hezkuntzako eskumen osoak biltzea aldarrikatuko dugu. Era berean, Ipar Euskal Herriko Elkargoak hezkuntzaren gaineko eskumenak hartzen joan dadin saiatuko gara. Halere, burujabetza eskuratzeko erronka ezin daiteke utzi eztabaida instituzionalak ematen duenaren aiduru; euskal hezkuntzaren historian erakutsi bezala, oinarrian lan egin eta espazioak irabaztea ezinbestekoa da, gerora aurreratu-takoaren aitortza marko juridiko-politikoetan lortzeko.

Horrela izan zen euskarazko irakaskuntzarekin frankismoan zehar eta horrela izan da berrikuntza pedagogikoarekin ere. Honela, ikastetxez ikastetxe hezkuntza eredu propio eta askatzaile baten aldeko urratsak sustatuko ditugu, "Iruten" filosofiari jarraiki, marko legalak ezartzen duenaren gaineratik. Era berean, hezkuntzan ere burujabearen aldeko herri akordioa egitea defendatzen dugu, hala Estatuetatik datozen erasoerentzako nola gaurko esparru juridiko-politikoak gainditzeko.

Lurraldetasunari dagokionez ere, eskema bera defendatzen dugu: herri ekimenaren eta ekimen instituzionalaren arteko uztarketa. Alde batetik, hezkuntza komunitatean elkarlan nazionalerako joerak indartzea proposatzen dugu, praktikan erreferentzia komunak elikatuz. Elkarlan hau egitasmo zehatzetan gauzatu daiteke (esaterako, Euskal Curriculumean) eta baita orokorrean ere (esaterako, Euskal Herriko Eskola Kontseilua osatuz).

Beste alde batetik, hiru administrazioen eta hiru esparruetako unibertsitateen arteko elkarlana aldarrikatzen dugu. Jakina, elkarlan honek proiektzio handiagoa hartuko luke baldin eta estatus berrien eztabaiden ondorioz egitura komunak (esaterako, unibertsitate barruti komuna) sortzeko apustua egongo balitz, baina edozein kasutan ere gaurdanik beharrezkoa da urratsak ematen hastea, hezkuntza edota curriculumaren alorrean elkarlana gauzatzuz.

Hortaz, gaurdanik hasita, honako helburu estrategiko hauek lantzea planteatzen ditugu:

- ★ Estatus berrietan hezkuntza eskumen osoak jasotzea eta garatzea, bai EAEn baita Nafarroan ere. Ipar Euskal Herrian, elkargo berrian hezkuntza gaiak jorratzen hastea, eskumen osoen norabidean.
- ★ Egunez egun nahi eta behar dugun hezkuntza eredu euskaldun, parekide eta askatzailearen aldeko eraikuntza lana egitea, oztopo diren legeen gaineratik hezkuntza komunitatearen legitimitatea defendatuz.
- ★ Estatuetatik datozen erasoerentzako herri erantzunak artikulatzea. Era berean, nahi eta behar dugun hezkuntza

eredua eraikitzeke herri akordioak sustatzea.

- ★ Euskal Herriko hezkuntza komunitatearen baitan nahiz hiru esparruetako instituzioen (Gobernu nahiz unibertsitateen) artean elkarlana sustatzea. Euskal Curriculumak garatzeko edota murgiltze ereduak sustatzeko ekimen komunak beharrezkoak dira.

5.2 Euskal eskola publiko komunitarioa sortzeko konfluentzia helburu

Bestalde, euskal eskola publiko komunitarioa eratzeari begira, egungo eskola publikoaren eta bokazio publiko/komunitarioa duten eskola kontzertatuen arteko konfluentzia estrategikoa defendatzen dugu.

Konfluentzia honetarako, beharrezkoa da, batetik, egungo eskola publikoa deszentralizatzea eta autogestio ereduak garatzea, euskal eskola publiko komunitarioa garatuz; eta bestetik, ikuspegi publiko/komunitarioa duten eskola kontzertatuetatik ere (hala nahi duten ikastolak, “eskola libreak” edota bestelakoak) euskal eskola publiko komunitarioko trantsizioa egitea. Bi eremuetan emango litzateke, batetik, proposamen honetan definitutako hezkuntza eredurako garapena; eta bestetik, titularitate aldaketa: tokiko instituzio publikoa bihurtuko litzateke ikastetxearen titularra (eraikinen jabea nahiz kontratazioen subjektu legala) eta hezkuntza komunitatea berriz hezkuntza egitasmoaren subjektua edo “titularra”.

Konfluentzia honen ikuspegia gaurdanik jorratu beharko litzateke. Alabaina, egitasmo hori bururaino eramateko, beharrezkoa litzateke hiru esparru administratiboetan estatus berriak inplementatzea. Izan ere, espainiar eta frantziar legeen arabera nekez gauzatu daiteke euskal eskola publiko komunitarioaren sorrera. Konfluentzia, Euskal Herriko legedi propioaren arabera eman beharko litzateke. Berrito diogu, horrek ez du esan nahi euskal eskola publiko komunitarioaren lanketa sine die atzeratzea. Gaurdanik jorratu behar da aldarrikapen hori, gaurdanik egin behar da borroka ideologikoa, gaurdanik bilatu behar dira horren inguruko adostasunak eta gaurdanik eman behar dira urratsak.

Atal honi dagokionez, gaurdanik hasita honako helburu estrategiko hauek garatzea planteatzen dugu:

- ★ Euskal eskola publiko komunitarioa definitzeko adostasunak bilatu eta horren aldeko indarrak biltzea.
- ★ Balizko konfluentzia baten aspirazio historikoa eguneratzea, beti ere kontutan hartuz urrats hori ahalbidetuko lukeen euskal legedia sortzeko beharra dagoela.

6. HURRENGO LAU URTETARAKO NEURRIAK.

Eremu desberdinetatik, euskal eskola publiko komunitariorako bidean

Aurreko atalean egindako trantsizio proposamena aintzat hartuta, hala orokorrean nola bi hezkuntza eremuetan (egungo publikoa eta kontzertatua) neurri zehatzak hartzea proposatzen dugu:

6.1 Hezkuntza esparru osoari begira

Hezkuntzan inbertsio publikoa handitu, desberdintasun orori aurre egiteko neurriak hartu eta hezkuntza eredu propioa garatu beharra dago. Horretarako, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- a. Hezkuntzan baliabide publikoak nabarmen handitzea, Europako beste herrialdeekin alderatuta hezkuntzak pairatzen duen azpifinantziazioarekin amaituz (BPGren %6 hezkuntzan inbertitzea izan daiteke erreferentziazko helburua). Ratioak nabarmen jaitsiko dira, eskola guztietan.
- b. Segregazio eta diskriminazio mota guztiak amaitzeko apustu estrategikoa egingo da: errenta baxuko ikasleen segregazioa, jatorri edota kultura atzerritarreko ikasleen segregazioa, generoaren arabera segregazioa, aniztasun funtzionalaren arabera, adinaren arabera eta baita ere hiru nazio sentipen ezberdinek eragindakoa (hezkuntza edo kulturen arabera segregazioa)...
 - » Ikastetxeko beharren arabera (errenta eta aniztasuna) ratioen progresibitatea ezarriko da (alegia, gero eta errenta baxuagoa nahiz aniztasuna jorratzeko behar handiagoa, orduan eta ratio txikiagoak). Honekin batera, aniztasuna aberastasun bezala jorratzeko baliabide espezifikoak jarriko dira: aniztasun funtzionala, sozio-linguistikoa, jatorriaren arabera... Ohiko hezkuntza jarduera jarraitzerik ez duten ikasleei dagokionez, metodo farmakologikoen erabilpen masiboa baztertzea proposatzen dugu.
 - » Murgiltze eredu garatuko da eskola guztietan, euskara integratzearako elementua bilakatuz. Era berean, arrazismo eta nazio gutxiespen oro gaindituko duen curriculum sustatuko da.
 - » Feminismoa bilakatuko da hezkuntza sistemaren ardatz. Generoaren arabera segregazio eta diskriminazio oro ezabatzeke plangintza estrategikoa egingo da.
- c. Giza kohesioaren kontrako gehiegikeriak saihesteko asmotan, Administrazioak inklusiorako beharrezko indize bat sortuko du eta gutxieneko eta gehieneko tartea ezarriko da.
 - » Zentro bakoitzeko adierazle-multzo bat hartuko da oinarri: bekadun ikasle, hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasle, hezkuntza beharrezkoak edo berariazkoak dituzten edota adopzio edo familia- edo egoitzaharrera egoeran dauden ikasleen portzentaiak eta aintzat hartu beharreko beste adierazle batzuk.
 - » Behin kontzeptu hori araudian jasota, hezkuntza arloko Administrazioak urteroko txosten bat landuko du Lurralde, eskola-eremu edota zonalde eta ikastetxe bakoitzeko indizea erabilita.
 - » Inklusiorako beharrezko indizeak ezarritako tartean mugitu beharko dira diru publikoz hornitutako ikastetxe guztiak. Aipatutako indizea definitzerakoan, Lurraldearen erreferentzia globalei eta ikastetxeak dauden eskola-eremu edota zonaldearen erreferentzia hurbilagoei erreferatuko die.
- d. Eskola publiko eta kontzertatu guztietan honako irizpide hauek garatuko dira:

- » Euskarazko murgiltze ereduak: derrigorrezko eskolaldia amaitzean, ikasle guztiek euskararen ezagutza osoa lortu behar dute. Eskolako komunitatea euskaraz bizi ahal izateko plangintzak ezarri.
- » Hezkidetzak: hezkuntza egitasmoaren funtsezko ardatz gisa ezarriko da eta eremu guztiak barne bilduko ditu (curriculumak, pedagogia, espazioen antolaketa, harremanak, barne funtzionamendua...)
- » Hezkuntza komunitate osoak partekatutako eta Euskal Curriculumean oinarritutako hezkuntza egitasmo propioa.
- » Konpetentzietan oinarritutako pedagogia aktiboak. Ikaslea bilakatuz hezkuntza jardueraren subjektu.
- » Ikasle bakoitzaren erritmo eta beharretara egokitutako ebaluazioa. Kalifikazioa eta azterketen ereduak gainditu eta konpetentziak garatzera bideratutako ebaluazio ereduak ezarriko da.
- » Parte hartzea eta gardentasuna. Hezkuntza komunitate osoak izango du hezkuntza egitasmoaren diseinuan eta garapenean parte hartzeko aukera.
- » Laikotasun erreala.
- » Doakotasun erreala.
- » Herrian txertatua egotea eta herri eragileekin elkarlanean aritzea.

e. Udalen parte hartzea indartzea.

- » Hezkuntza formala, ez-formala eta informala uztartzeko.
- » Etorkizunean eskola publikoen kargu egiteko prestatzen hasteko.
- » Gaurdanik hasita, euskal eskola publiko komunitarioaren norabidean kokatzen diren herriko eskola ezberdinen arteko dinamika bateratuak sustatzeko.
- » Eskolen diseinua herriko plangintza orokorrean integratzeko (hiri orekatu eta ez segregatuan auzo biziak eta haiei lotutako auzo eskolak).
- » Segregazio prozesuei aurre egiteko, hezkuntzaren ikuspegitik bai baina baita hirigintzaren ikuspegitik ere. Hezkuntzaren ikuspegitik segregazioari aurre egiteko, herri edo eskualdeka eskolaratze bulegoak garatzea proposatzen dugu, tokian tokiko errealitateari egokituta.

f. Langileriarri dagokionez:

- » Langileei ezarritako murrizketa oro bertan behera utzi.
- » Lan baldintza egokiak bermatu kolektibo guztietan eta sare guztietan.
- » Prestakuntza-sistema sakonki birmoldatu.
- » Langileen egonkortasuna bermatu.
- » Lan baldintzen estatalizazioari aurre egin eta negoziazio kolektibo erreala berreskuratu.

- g. Berritzeguneak (EAE) nahiz irakasleen laguntza zentroak (Nafarroa) berrantolatu behar dira, bloke honetan azaldutako erronkei heldu ahal izateko. Era berean, bi esparru administratiboetan dauden hezkuntza baliabideen eta Ipar Euskal Herriko eskolen arteko elkarlana sustatzea proposatzen dugu.

6.2 Egungo sare publikoari begira

Egungo eskola publikotik, herri eta auzo eskoletan oinarritutako euskal eskola publiko berrirako trantsizioa egin beharra dago, 6.1 atalean zehaztutako irizpideak eskola publiko guztietan garatuz. Eskola publikoan autogestio ereduari eta parte hartzeari ateak irekitzea funtsezkoa izango da. Besteak beste honako neurrietan arreta jarri beharra dago:

- a. Eskola publikoarentzat gaur egungo erronken aurrean behar bezala erantzuteko baliabide nahikoak, estrukturalak, pertsonalak eta ekonomikoak, bai herrigune handietan baita landa eremuko eskolei dagokionean ere. O urtetik hasita doakotasun erreala bermatu beharra dago, kuota oro desagertze bidean jarriz (materiala edota jantokia barne).
- b. Errenta baxuko eta jatorri atzerritarreko ikasleen segregazio prozesuari aurre egiteko, epe jakin batean premiazko plana: eskola segregatuetatik ihes egin duten klase ertaineko familiak erakartzeko planak, baliabide bereziak, epez-kanpoko matrikula eskola segregatuetara ez bideratzea,.
- c. Murgiltze eredu eta Euskal Curriculumak garatu, eskola publiko guztietan.
- d. Emakumeen kontrako diskriminazioari aurre egiteko eskolako plan estrategikoa.
- e. Eskola publiko autogestionatuak sortzea, ziurrenik hasieran egitasmo piloto gisa, eta zabaltzea. Kudeaketa eredu gardenak eta demokratikoak. Diru publikoaren kudeaketa gardenak bermatuz.
- f. Eskola publiko guztietan, hezkuntza komunitatearen parte hartzea eta erabakimena indartzeko neurriak hartzea, Eskola Kontseiluaren erreformatik hasita. Zuzendaritza eredu gerentzialarekin amaituz.
- g. Laikotasun erreala bermatu beharra dago, hala ospakizunei (aste santua, gabonak) nola curriculumari dagokionez (irizpide erlijiosoz kontratatutako irakasleek emandako erlijio klaseak).
- h. Hezkuntzako langileen egonkortasuna bermatzea lehentasunezkoa da eskola publikoetan hezkuntza egitasmo sendoak garatu ahal izateko. Lan eskaintza publiko zabalekin batera, egonkortasuna hobetzeko formulak arakatu beharko lirateke. Era berean, LEP eredu eta sarbide sistema oro har berrikustea proposatzen dugu.

6.3 Egungo ikastetxe kontzertatuei begira

Eremu kontzertatuan askotariko egitasmoak daude: ikuspegi komunitarioaz aritzen diren egitasmoetatik hasi (izan ikastola edo izan bestelako eskola) eta hezkuntza elitista helburu duten horietaraino. Ikuspegi komunitarioz aritzen direnei dagokionez, dagokion Hezkuntza Sailaren eta ikastetxe bakoitzaren artean euskal eskola publiko komunitarioaren norabidean elkarlanean aritzeko akordio estrategikoa egitea proposatzen dugu, horren arabera finantziario publikoa finkatuz. Hezkuntza elitista helburu duten eta aipatutako norabidean kokatu nahi ez duten eskolek, aldiz, ez lukete diru publikorik jasoko.

Euskal eskola publiko komunitarioaren norabidean kokatu eta ondorioz finantziario publikoa jasoko luketen eskola kontzertatuetan 6.1 atalean azaltzen diren irizpideak garatu beharko dituzte. Honako hauetan arreta berezia jarriz:

- a. Murgiltze eredu eta Euskal Curriculumak garatu, diru publikoa jasotzen duten eskola guztietan.
- b. Errenta baxuko eta jatorri atzerritarreko ikasleen segregazio prozesuari aurre egiteko, epe jakin batean ezaugarri

horietako familiak erakartzeko planak.

- c. Emakumeen kontrako diskriminazioari aurre egiteko eskolako plan estrategikoa.
- d. Laikotasun erreala. Erlijioa, hezkuntza egitasmo eta jardueratik at. Kontratazioetan, irizpide erlijiosorik ez. Ospakizunetan kutsu erlijiosorik ez.
- e. Hezkuntza egitasmoaren titularra hirugarren bat baino (enpresa, fundazio edota orden erlijiosoq), bertako hezkuntza komunitatea izatea hobetsiko da. Parte hartzea bermatuz eta zuzendaritza eredu gerentzialarekin amaituz.
- f. Doakotasun erabatekoa, horretarako hileroko kuotek eta kooperatibista izateko kuotek desagertzera jo beharko lukete.
- g. Diru publikoaren kudeaketa gardena.
- h. Kontratazio batzordeak ezartzea eta berdintasunean, merituan eta ahalmenean oinarritutako hautaketa prozesua bermatzea, kontratazioetan diskriminazio oro ekidinez.
- i. Langileen lan baldintzak eskola publikoarekiko homologatzeko trantsizioa.

Esan bezala, irizpide hauekin bat egiten duten eskolekin kontzertuak berrituko dira epealdi baterako (esaterako, 2-3 urterako). Eskola bakoitzean auditoria edota azterketa ekonomiko sakon bat egingo da, finantziazio beharrak zehazteko. Euskal eskola publiko komunitarioaren norabidean elkarlanean aritzeko akordio estrategikoa sinatu eta aipatutako irizpideak betetzen dituzten eskolek, hezkuntza egitasmoa garatu ahal izateko beharrezkoa den finantziazio publiko guztia jasoko dute. Hitzartutako epea amaitzean, ebaluazio sakona egingo da, bai irizpideen gauzaperari dagokionez baita finantziazio beharrei dagokionez ere. Honenbestez, kontzertazio politika errotik aldatzea da proposatzen duguna, euskal eskola publiko komunitarioarako trantsizioa egiteko tresna gisa erabiliz.

6.4 “Eskola libreak” eta hezkuntza egitasmo ez formalak

Badira kontzertu sistematik kanpo aritzen diren eskola “libreak” edo “aktiboak” nahiz askotariko hezkuntza egitasmo ez formalak. Hauei dagokionez ere, euskal eskola publiko komunitarioaren norabidean elkarlanean aritzeko eskaintza egin beharko litzateke. Atal honen inguruko azterketa sakonago bati helduko diogu aurrerago.

<p style="text-align: center;">0</p> <p style="text-align: center;">Egungo egoera</p>	<p style="text-align: center;">1</p> <p style="text-align: center;">Datozen lau urtetarako neurriak</p>	<p style="text-align: center;">2</p> <p style="text-align: center;">Estatus politiko berriak Euskal Herrian (Estatu egiturak)</p>	<p style="text-align: center;">3</p> <p style="text-align: center;">Euskal Herriko Errepublikako Konfederala</p>
<p>Hezkuntza eskumen mugatuak Hego Euskal Herrian, eskumenik ez Ipar Euskal Herrian</p> <p>Hezkuntzaren azpifinantzia-zioa</p> <p>Askotariko segregazio prozesuak</p> <p>Hezkuntza ereduari dagokionez, hainbat gabezia: euskalduntzen ez duten ereduak, curriculum arrotzen eragina, ikuspegi androzentrikoaren in-darra...</p> <p>Eskola publikoaren eredu zentralizatua. Publikoaren baitan nahiz kanpo, ikuspegi komunitarioa jorratzen duten eskolak.</p> <p>Eskola pribatu eta erlijiosoaren kontzertazio unibertsala.</p>	<p>Hezkuntza burujabetzaren alde borrokatu, Euskal Herri mailako elkarlana sustatu.</p> <p>Udalen funtzioa indartu</p> <p>Hezkuntzan BPGren %6 inbertitu. Ratioak jaitsi.</p> <p>Ikastetxe guztietan garatu: murgiltze ereduak, Euskal Curriculum, hezkidetzak, parte hartzea, gardentasuna, laikotasuna, doakotasuna, aniztasuna. Azken honi dagokionez, gutxieneko indize bat bete beharko da diru publikoa jasotzeko.</p> <p>Egungo eskola publikoetan, euskal eskola publiko komunitarioaren bidea egin. Aurrez aipatutako oinarriak bermatu. Doakotasun erreala. Autonomia handitu eta autogestio egitasmoak martxan jarri. Irakasleria egonkortu. Sarbidea berrikusi.</p> <p>Egungo eskola kontzertatuen artean ikuspegi komunitarioa dutenekin elkarlan estrategikoa, eskola publiko komunitarioaren bidean. Aurrez aipatutako oinarriak bermatu. Doakotasun erreala. Jabetza soziala lehenetsi. Irakasleriaren homologazioa. Kontratazioetan aukera berdintasuna bermatu.</p>	<p>Hezkuntza eskumen osoak Euskal Herrian. Hezkuntza sistema propioa eraiki. Euskal Herri mailako egitura komunak sortu.</p> <p>Eskola publiko komunitarioa sortzeko konfluentzia.</p> <p>Eskola publikoaren kudeaketaren transferentzia, lurralde administratibotik udalerrit/eskualdeetara. Publikotasun eredu berria.</p> <p>Ikuspegi komunitarioa duten eskolen publikazio prozesua.</p>	<p>Hezkuntza sistema propioa. Hiru maila: udalerrit/eskualdeak (kudeaketa), hiru lurraldeak (koordinazioa eta ikuskaritza) eta hezkuntza esparru komuna (nazio dimentsioa).</p> <p>Hezkuntza eredu askatzailerak, herri, genero nahiz klase ikuspegitik.</p> <p>Euskal eskola publiko komunitarioa ardatz. Beste eskolak ez dira diru publikoz finantzatu.</p>

iruten



iruten



www.iruten.eu